

EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

GENEROAREN ARABERAKO
ERAGINAREN EBALUAZIOA

KIROLETAN



2021

Izenburua: "Generoaren arabeko eraginaren ebaluazioa kirolean"

Editorea: EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundea
Manuel Iradier 36. 01005 Vitoria-Gasteiz

Egilea: EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundea

Data: 2021eko uztailean eguneratua

AURKIBIDEA

1. TESTUINGURUA	4
2. GENERO ERAGINA EBALUATZEKO AZTERTU BEHARREKO FUNTSEZKO ALDERDIAK	6
2.1. EMAKUMEEN ETA GIZONEN PRESENTZIA SEKTOREAN.....	6
2.2. BALIABIDEAK ESKURATZEKO DESBERDINTASUNAK	13
2.3. EMAKUMEEN ETA GIZONEN PARTE-HARTZE DESBERDINA .	17
2.4. GIZARTE-ARAUEN ETA BALIOEN ERAGINA	19
2.5. BERDINTASUNAREN ARLOKO AGINDU ESPEZIFIKOAK	24
3. LEGEDIA	26
4. DATU-ITURRIAK.....	28
5. ERREFERENTZIA-AGIRIAK	30

1. TESTUINGURUA

Gure gizartean, kirola da gizon-emakumeen arteko berdintasunik eza gehien nabarmentzen den esparruetako bat. Hainbat arrazoi dugu horretan laguntzaile: neska-mutikoak berdin ez gizarteratzea; kirolak atxikita dituen baloreen aurretik maskulino-femenino estereotipoak gailentzea; kirol-jardueretan gizontasuna nagusitzea; emakumeen kirolean profesionaltasunik apenas egotea; komunikabideetan eskas eta urri agertzea, eta abar.

Kirolaren arloan, emakumearen presentzia eta parte hartzea berandu eta zailtasun handiak gaindituta etorri da. Egun ere, beren presentzia –handitu bada ere– gizonena baino txikiagoa da kirolean, bai eskola-kirolean, bai aisialdiko kirolean, bai kirol profesionalen. Halaber da txikiagoa emakumeen presentzia kirol-sistemaren egitura gehienetan. Beste esparru batzuetan bezala, kirolean ere hainbat traba esplizitu eta inplizitu gainditu behar izan dituzte emakumeek; alegia, desberdintasuna sorrarazi duten gizarte- eta kultura-estereotipoen ondoriozko aurreiritziak.

Izan ere, kirol-arloko desberdintasuna sortzetikoa da; gizonek sortu zuten kirola gizonek beraiek egin zezaten, balio jakin batzuk transmititzea eta beren ahalmen fisikoak garatzea xede zutela. Balio horiek, hain zuzen ere, lehiakortasuna, indar fisikoa edota agresibitatea dira, guztiak ere mugimen-gaitasunak dituztenak oinarrian; indarra, potentzia edo erresistentzia.

Hala ere, kirolak beste balio batzuk ere transmititzen ditu; adibidez, lankidetzeta eta talde-lana. Halaber, lagungarria da autoestimua indartzeko eta norbera hobetzeko, gizon-emakumei ongizate fisikoa eta psikologikoa ekarriz.

Kirolak eta jarduera fisikoek halako indarra eta balioa dute hezkuntzan, osasunaren sustapenean eta komunikabideetan, derrigor izan behar dute gizartea aldatzeko eta gizon-emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko akulu. Kirola egitea ahalduntze-ariketa ere bada emakumeentzat.

Hala ere, eta jarraian ikusiko dugunaren arabera, gero eta emakume gehiagok kirola egiteak ez du esan nahi haiek gizonen antzeko sarbide-baldintzak, kirola egiteko motibazioa, kirolari eskainitako denbora, pizgarriak eta trabak dituztenik, ez eta batzuek zein besteek erabakiak hartzeko aukera berdinak dituztenik ere.

Testuinguru horretan, antzematen diren desberdintasun-elementu horiek guztiak gainditzeko, funtsezkoa da berdintasunari buruzko lege-manuak behar bezala betetzea. Lege-manu horiek, besteak beste, honakoak dituzte hizpide: botere publikoen betekizuna da emakumeen ahalduntzea sustatzea, hala nola balio-aldaketa gertaraztea, emakumeek egindako kirola sustatu eta errekonozitzea, zenbait kirol-jardueratara gizonak eta emakumeak heltzea oztopatzen edo eragozten duten trabak gainditzea, erabakiak hartzen diren esparruetan emakumeen presentzia areagotzea, kirola sustatzeko programa publiko guztietan genero-ikuspegia txertatzea,

sexuagatiko bereizkeria dakarten kirol-jarduerak debekatzea, eta, oro har, kirol-arloari dagokionez, emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasuna eragozten duten traba guztiak deuseztatzea.

2. GENERO ERAGINA EBALUATZEKO AZTERTU BEHARREKO FUNTSEZKO ALDERDIAK

2.1. EMAKUMEEN ETA GIZONEN PRESENTZIA SEKTOREAN

Kirola –kirol-jarduera indibidual edo kolektibo gisa eta aisialdiko eta/edo lehiatzeko testuinguruetan ulertuta–, lehen esan bezala, esparru maskulinoa izan da tradizioz, eta emakumeak, ordea, geldiro baina etengabe heldu dira bertara. Hori bai, oro har, emakumeen presentzia oraindik ere txikiagoa da gizonena baino, batez ere kirol federatu eta profesionaletan. Jarraian ikusiko dugun bezala, emakume gehien diharduten kirol-jarduerak osasunari eta aisialdiari daude lotuta gehienbat, eta ez hainbeste kirol-lehiari.

Gorputz-hezkuntza hezkuntza-curriculumean sartu izanak derrigorrezko hezkuntza jasotzeko adinean dauden neska-mutilak kirola egiten has zitezela unibertsalizatu zuen. Ikastetxeetan, sexu batekoak zein bestekoak kirolera baldintza berdinetan heltzea ahalbidetu zen arren, era berean, adin goiztiarretik kirola gizarte-rol maskulinoari lotzea indartu zen, gorputz-hezkuntzako irakasle gehienak gizonetakoak zirelako. Egitate horrek bere horretan jarraitzen du hezkuntzaren arloan; izan ere, adibidez, 2018-2019 ikasturtean, araubide bereziko kirol-irakaskuntzetan matrikulatutakoen % 83 gizonak izan ziren.

Gainera, oraindik ere beharrezkoa da gorputz-hezkuntzaren (eta gainerako ikasketen) hezkidetzarako oinarri sendoak ezarri eta garatzea neska-mutilak baldintza berdinetan jardun daitezzen kirolean eta kirolarekiko interesa eta motibazioa gara dakien. Horretarako, irakasleei prestakuntza akademiko etengabea eman behar zaie berdintasun-gaietan, kirol-teknikako ezagutza teoriko eta praktikoez gain, hezkidetzaren arloko ezagutzak bereganatu eta beren eguneroko lanetan aplikatu ditzaten.

Edonola ere, ikastetxeetan kirola unibertsalizatu bada ere, ez da gauza bera gertatzen **eskolaz kanpoko kirol-ekintzetan**, horietan hautematen baitira desorekak sexuen presentzian. Esaterako, 2019ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoetan, parte-hartzaileen % 40,9 neskak ziren, eta % 59,1, aldiz, mutilak (18,2 puntuko alde). Modalitate batzuetan sexu bateko parte-hartzaileak baino ez zeuden; adibidez, neskek ez zuten parte hartu futboleko eta areto-futboleko, ez eta mutilek ere aerobic-ean, gimnastika erritmikoan eta bolebolekoan. Horrenbestez, partaidetza txikiagoa izateaz gain, segregazio horizontal handia dago zenbait kirol-modalitateetan.

Era berean, kategoriaz igo ahala neska parte-hartzaille gutxiago dagoela ikus daiteke. Hain zuzen ere, nesken partaidetzak nabarmen egiten du behera kimu kategoriatik haur kategoriara igarotzean. Gainera, eskola-kiroletik kirol federaturako urratsean nesken kirol-uztea oso handia da, ziur aski, neskontzako eredu eta pizgarri egokirik ez dagoelako, ez eta neskek beren beharren eta baldintzen arabera motibatuko dituen berariazko orientabiderik ere.

Modu horretan –eta azken urteetan **kirol federatuan** emakume gehiago dagoen arren–, hauek dira 2020ko datuak EAEn: emakumeen kirol-lizentziak EAeko lizentzia guztietatik % 26,2 baino ez dira; gizonenak, ordea, % 73,8. Arrakala, beraz, handia da: 47,6 puntukoa. Kirol egokitan are handiagoa da gizon-emakumeen arteko desberdintasuna: emakumeen lizentziak % 19,7 dira, eta gizonenak, % 80,3 (60,7 puntuko alde). Oro har, lizentzia duten gizonen kopurua emakumeena baino handiagoa zen 47 kirol-federazioetatik 42tan. Soilik gimnastikako federazioan (% 93,9 neskek), hipikakoan (% 73,1), boleibolekoan (% 71,3), igeriketakoan (% 55,9) eta hockeykoan (% 55,5) da handiagoa lizentzia duten emakumeen ehunekoa gizonena baino. Bestalde, ehiza, motoziklismo, aireko kirol eta txirrindularitzako federazioetan lizentzia duten emakumeak % 5 baino gutxiago dira¹.

Horrek guztiak agerian uzten du kirol federatuan emakumeen presentzia nabarmen minoritarioa dela eta oraindik ere segregazio horizontala gertatzen dela, kirol jakin batean, tradizioz, nagusiki gizonak edo emakumeak jardun izan diren arabera.

Herri-kirolen kasuan, hainbat kontu azpimarratu behar dira; lehenik, emakumeen partaidetza oso txikia izan da mendeetan zehar. Hala ere, joera hori alderantzikatu egin da azken hamarkadetan, batez ere 80ko hamarkadaz geroztik, orduan sortu baitziren sokatirako talde asko, txapelketa garrantzitsuak antolatzearekin batera. Era berean, nabarmendu behar da azken urteotan gero eta emakume gehiagok parte hartu duela txinga, frontza, sega edo harri-jasotze probetan. Datuen arabera, 2016an 109 lizentzia erregistratu zituzten emakumeek; gizonek, ordea, 808. Hau da, emakumeen lizentziak apenas izan ziren guztizkoaren % 11,9. Nolanahi ere, datuak falta dira –diziplinaka– herri-kiroletan aritu den emakume kopuruaren inguruan. Tradizio sustraitua dira herri-kirolak, eta, gizonak nagusi izan arren, emakumeen presentzia indartzen ari da, baina gutxiengoa dira oraindik ere.

Antzinako **Olinpiar Jokoetan**, gizonak soilik lehia zitezkeen, eta Olinpiar Joko modernoekin batera iritsi zen emakumeen parte-hartzea 1900. urtean. Geroztik, emakumeen parte-hartzea errealitate bilakatu da Olinpiar Jokoetan; halaxe ikusi genuen Rioko edizioan, 2016an. Orduan, 5.059 emakume kirolarik hartu zuten parte, eta, hala, emakumeen parte hartzeak ehuneko historikoa lortu zuen, % 45 izan baitziren emakumeak². Olinpiar

¹ Datuok Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Berdintasunerako Administrazio Unitateak eskainitakoak dira.

² Nazioarteko Olinpiar Batzordea (2020). Factsheet: Women in the Olympic Movement.

Jokoetako euskal ordezkarietan 14 emakume eta 9 gizon egon ziren; hau da, emakumeak % 60,9 izan ziren (Londresko Jokoetan, 2012an, 9 emakume eta 7 gizon egon ziren)³. Hurrengo Olinpiar Jokoei begira –Tokio, 2021–, Nazioarteko Olinpiar Batzordeak historiako joko berdinzaleenak lortu nahi ditu; izan ere, Olinpiar Batzorde Nazional guztiek emakume atleta eta gizon atleta bana izan beharko dituzte bederen⁴.

Goi-mailako kirolari dagokionez, Basque Teamek 59 beka eman zizkien 2019an goi-mailako kirolariei; bada, 32 beka emakumeei eman zitzaizkien (% 54,2) eta 27 gizonei (% 45,8). 2018ko datuak bestelakoak izan ziren: 23 beka emakumeentzat izan ziren (% 43,4) eta 30 gizonentzat (% 56,6). Gaur egun, EAEko goi-mailako kirolariei ematen zaizkien beka orekatuak dira generoari dagokionez; hala ere, aldeak daude gizon-emakumeen kirol-ibilbideen garapenean.

EAEko goi-mailako emakumezko kirolarien egoeraren azterketa genero-ikuspuntutik ikerlanaren arabera (Azurmendi eta Murua 2010), emakume kirolariak gizon kirolariak baino kezkatuago ageri ziren beren kiroleko profesionalizazio-maila txikiaren ondoriozko egonkortasun-ekonomikorik ezagatik eta babesle faltagatik, bai eta lesio larriren bat edo ama izateak eragin diezaiekeen babesgabetasunagatik ere. Hautzaro edo gaztaroaz geroztik argi zuten beren kirolari-bizitza eta ikasketak bateratu behar zituztela, etorkizun profesionala bideratuko bazuten. Hala, ia hirutik batek (% 33 inguruk) beka jasotzea eta lana egitea bateratzen zituzten (gizonezkoen % 16,6ak baino ez zuen gauza bera egiten). Etorkizunari dagokionez, emakumeek nahiz gizonek adierazten zuten kirolarekin lotutako lanetan aritu nahi zutela, batez ere kudeaketan (emakumeen % 61,5 eta gizonen % 77,7), baina baita entrenatzaile lanetan ere (emakumeen % 53,8 eta gizonen % 72,2).

Lehia-kiroletik harago, aisialdian **ariketa fisikoa** egiteari dagokionez, gizonak, horretan ere, emakumeak baino aktiboagoak dira. Hau da, kirol gehiago egiteaz gain, maizago egiten dute. *Kirola eta jarduera fisikoa 2017* ikerlaneko datuen arabera (Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetea), EAEko emakumeen % 57 aritzen da kirol batean edo gehiagotan; gizonen ehunekoa, ordea, % 70 da (13 puntuko aldea). Aitzitik, inolako kirolik egin ez duen emakumeen ehunekoa handiagoa da gizonena baino (emakumeen % 18, gizonen % 7).

Oro har, gizonen nahiz emakumeen kasuan, kirol gutxiago egiteko joera dago adinak gora egin ahala, batez ere 65 urtetik gorako pertsonen artean. Aitzitik, 18-29 eta 30-45 urteko pertsonen ehunekoa da kirol bat edo gehiago egiten duten pertsonen artean handiena.

³ Datuok Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Berdintasunerako Administrazio Unitateak eskainitakoak dira (jatorrizko iturria: Basque Team).

⁴ Nazioarteko Olinpiar Batzordea (2020). Factsheet: Women in the Olympic Movement.

Kirol-uztea handiagoa da emakumeen artean gizonen artean baino, batez ere 30-45 urteko pertsonen artean (emakumeen % 28 eta gizonen % 14). Joera hori, halere, aurkakoa da 65 urtetik gorako pertsonen artean; izan ere, gizonen kirol-uztea handiagoa da emakumeena baino (9 puntu handiagoa).

1. koadroa. Zenbat kirol egiten den sexuaren eta adinaren arabera.

Zenbat kirol egiten den sexuaren eta adinaren arabera	Guztira	emakumeak (%)				Guztira	gizonak (%)			
		18-29	30-45	45-64	≥65		18-29	30-45	45-64	≥65
Kirol bakarra egiten du	26	27	24	27	25	31	40	27	31	28
Hainbat kirol egiten ditu	31	45	40	29	11	39	41	55	32	22
Kirola egiten zuen, baina ez orain	25	18	28	24	27	23	18	14	27	36
Ez du kirolik egiten	18	10	7	20	36	7	1	4	9	14

Kirola eta jarduera fisikoa 2017 txostenetik hartua (Prospekzio Soziologikoen Kabinetea, 2017).

Kirola egiten duten pertsonen artean, hauek dira emakumeek gehien egiten dituzten kirolak: ibiltzea (% 30), aerobic-a, dantza, pilates, zumba eta antzekoak (% 22) eta igeriketa (% 19). Gizonetan, ordea, txirindularitza (% 27), ibiltzea eta mendi-ibiliak (biak % 19) eta korrika egitea (% 18) dira kirol ohikoenak⁵. Ikus daitekeenez, aisialdiko kirolean ere badago segregazio horizontala; izan ere, gizonak kirol jakin batzuk egiten dituzte, eta emakumeek beste batzuk.

Kirol-jardueraren **maiztasunari** dagokionez, *Espainiako kirol-ohiturei buruzko inkesta 2015* txostenak (Hezkuntza, Kultura eta Kiroleko Ministerioa) datu hauek ematen ditu: emakumeen % 42,1ek eta gizonen % 50,4k bederen astean behin egiten du kirola (8,3 puntuko aldea). Aldea txikiagoa da kirola egunero egiten duten pertsonen artean: emakumeen % 17,3k eta gizonen % 21,8k egiten dute kirola egunero (4,5 puntuko aldea).

Osasun-inkesta 2018 azterlanak (Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila) ariketa fisikoa aztertzen du osasun-baldintzatzaile gisa. Horren arabera, azken 7 egunetan ariketa fisikoa egin duten emakumeen ehunekoa handiagoa da gizonena baino (% 51,8 -% 48,2). Hala ere, intentsitate-maila kontuan hartzen badugu, nabarmenezkoa da emakumeek gehiago egiten dutela intentsitate txikiagoko ariketa fisikoa gizonak baino (% 58,9), bai eta intentsitate ertainekoa ere (% 57). Gizonak, aldiz, intentsitate handiko ariketa fisiko gehiago egiten dute (% 61,9) emakumeek baino (% 38,1).

Inkestak beste aldagai batzuk hartzen ditu kontuan; tartean, gizarte-klasea edo prestakuntza. Horren arabera, pertsona aktiboen proportzioak zertxobait behera egiten du gizarte-klasean behera egin ahala. Talde aberatseneko gizonen % 84 eta emakumeen % 75 aktiboak dira, baina gizarte-talde apaleko pertsonen artean proportzioak txikiagoak dira, gizonen % 80 eta emakumeen % 70 baitira aktibo. Unibertsitateko ikasketak dituztenak

⁵ Hainbat erantzun eman zitekeenez, ehunekoen batura ez da 100. Diziplina ohikoenak aipatu dira.

aktiboagoak izan ohi dira lehen mailako ikasketak dituztenak baino: unibertsitateko ikasketak dituzten gizonen % 79 eta emakumeen % 81 aktiboak dira, lehen mailako ikasketak dituzten gizon-emakumeen % 73ren aldean.

Kirol-jarduera egiteko uneari eta lekuari dagokienez, *Kirola eta jarduera fisikoa 2017* azterlanak (Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetea) honako hau erakutsi du: kirola egiten duten emakumeek lanegunetan egin ohi dute (emakumeen % 43, gizonen % 35); gizonek, ordea, joera handiagoa dute kirola asteburuan egiteko (gizonen % 14, emakumeen % 10). Emakumeek gehiagotan erabiltzen dituzte kirol-instalazio publiko edo pribatuak gizonek baino (emakumeen % 44, gizonen % 31). Gizonek, ordea, nahiago dute kirola aire zabalean egitea (emakumeen % 52, gizonen % 65).

Azkenik, *Espainiako kirol-ohiturei buruzko inkesta 2015* azterlaneko datuen arabera, gizon-emakumeek bi arrazoi nagusi dituzte **kirol-jarduera egiteko**: batetik, sasoiaren egotea, eta, bestetik, dibertsioa edo entretenimendua. Hala ere, arrazoi horiek ez dute pisu bera emakumeen eta gizonen artean; izan ere, emakumeen artean sasoiaren egotea da arrazoi nagusia (% 32,7), eta bigarren mailan geratzen dira, arrazoi nagusitik urrun, dibertsioa edo entretenimendua (% 18,4). Aitzitik, gizonen kasuan, bi arrazoiek dute antzeko pisua (sasoiaren egotea % 27,6 eta dibertsioa edo entretenimendua % 27). Era berean, emakumeen artean ohikoagoak dira osasuna zaintzearekin eta ongizatearekin loturiko arrazoiak; adibidez, osasun-arrazoiengatik edo erlaxatzeko egiten dute kirola. Gizonek, ordea, gehiagotan adierazi dute gustatzen zaielako egiten dutela kirola.

Haurren ohiko kirol-jarduerari⁶ dagokionez, Bizkaiko Foru Aldundiak egin duen *Bizkaiko ikasleen kirol ohiturak 2017* azterlanak dio nesken % 94,5ek eta mutikoen % 96,7k egiten duela kirola eskola-ordutegitik kanpo. Kirol-jardueraren ehunekoak handiak dira bi sexuen kasuan Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ziklo guztietan; hala ere, ehunekoak behera egiten du Bigarren Hezkuntzako lehen zikloan hastean.

Ez dago alde nabarmenik neska-mutilek kirola egiteko dituzten arrazoiaren artean; hauek dira arrazoi nagusiak: «gustuko izatea» (nesken % 30,4, mutilen % 31,9), «osasuntsu egotea» (nesken % 18,1, mutilen % 15,8) eta «lagunekin

⁶ EAEk lehen aldiz hartuko du parte Active Healthy Kids Global Alliance-ren Global Matrix 4.0 azterlanean. Azterlanak, bada, hainbat balioespen egingo ditu EAEko haur eta gazteek egiten duten ariketa fisikoaren gainean.

Ohiko ariketa fisikoari loturik, Eusko Jaurlaritzaren Mugimunt ekimena azpimarratu behar da, fisikoki aktiboagoa den gizartea sortzeko helburua du-eta. Sektorearteko proiektua da, jarduera fisikoa areagotzeko eta sedentarismoa murrizteko ekimenak bateratzen dituen, pertsona inaktiboak aktibo bihurtzeko neurriei lehentasuna emanez. Hiru gobernu-plan hartzen ditu oinarrian: Osasun Plana 2013-2020, Zahartze Aktiborako Euskal Estrategia 2015-2020 eta Jarduera Fisikoaren Euskal Plana.

egotea» (nesken % 10,6, mutilen % 13,6)⁷. Mutil gehiagori gustatzen zaio kirola (nesken % 53,5, mutilen % 75,6)⁸, bai eta lehia ere.

Goi-mailako kirolean eta/edo kirol profesionalean dago genero-arrakalarik handiena, hala emakumeen presentzia nola diru-sarrera ekonomikoetan edo oihartzun sozialean.

Goi-mailako kirolean gizon baino askoz emakume gutxiago dago. Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak emandako datuen arabera, goi-mailako kirolarien % 40,7 ziren emakumeak 2020 urtean; gizonak, ordea, % 59,3 ziren.

Emakume kirolarien egoeraz gain, beharrezkoa da kirolaren esparruan lan egiten duten beste emakume batzuen egoera aztertzea. Nabarmentzekoa da, bada, emakumeen hutsunea handiagoa eta parte-hartzea txikiagoa dela eremu hauetan: **arbitroen, entrenatzaileen, teknikarien, epaileen eta kirol-munduko kudeatzaileen** eremuan. Gaiaren inguruko azterlanetan ere hutsune handia dago.

Europako Batzordearen *Genero-berdintasuna kirolean: ekintza estrategikoak abiarazteko proposamena 2014-2020* txostenaren arabera, Europako kirol-entrenatzaile guztien % 20 eta % 30 artean dira emakumezkoak. Halaber, ohikoagoak dira emakume entrenatzaileak emakumeak nagusitzen diren kirolean –hala nola dantzan, gimnastikan, patinaje artistikoan edo hipikan–, eta tokian bertan eta eskualdean lehiatzen diren emakumeekin, nerabeekin edo hurrekin egiten dute lan gehienbat.

Goi-mailako kirolean aritzen diren emakume epaile eta teknikariei dagokienez, EAEko teknikarien % 22,7 ziren emakumeak 2020an (Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak emandako datuen arabera). Ezin izan dugu informazio estatistikorik bildu EAEko emakume arbitroen inguruan.

Emakumeek EAEko kirol-elkarteen erabaki-postuetan duten presentzia arretaz aztertuko da 2.3 atalean (Desberdintasunak emakumeen eta gizonen parte-hartzean); hala ere, Genero Berdintasunaren Europako Institutuak (EIGE) emandako datuen arabera, erabaki-postuen % 14 soilik betetzen dituzte emakumeek.

Hutsune nabaria dago emakumeek kirolari loturik betetzen dituzten lanpostuen gaineko azterlanetan; diagnostiko-elementu horrek, bada, agerian uzten du zer-nolako beharra dagoen emakumeen eta gizonen

⁷ «Zergatik egiten duzu kirola?» galderari hainbat erantzun emateko aukera zegoenez, ehunekoen batura ez da 100. Kirola egiteko arrazoi nagusiak aipatzen dira.

⁸ «Nahikoa» eta «asko» erantzunen batura (galdera: «¿Gustuko duzu kirola egitea?»).

egoera bereizgarriaren inguruko azterlanak egiteko eta eremu hori sakonago ikertzeko.

Oro har, Estatuko Biztanleria Aktiboaren Inkestak (2019) **kirolaren esparruko enpleguari**⁹ buruz ematen dituen datuek erakusten dutenez, gizonak dira nagusi kirolaren sektorean, % 59,3 baitira kirolaren esparruko sektoreetan lan egiten duten gizonak, eta % 40,7 emakumeak. Arrakala, beraz, 18 puntutik gorakoa da.

⁹ Ekonomia-sistemaren barruan kirolarekin loturiko lan bat egiten duten edo kirolaren sektorean lan egiten duten pertsona enplegatuen taldea. Horrenbestez, honako lanbide hauek sartzen dira kirolaren esparruan: kirolariak; entrenatzaileak; kirol-jardueren irakasleak; kirol-instalazioak, kirol-klubak eta gimnasioak kudeatzeko lanbideak eta kirol-ikuskizunak sustatzeko lanbideak.

2.2. BALIABIDEAK ESKURATZEKO DESBERDINTASUNAK

Atal honetan aztertuko dira, batetik, kirol-baliabideak lortzeko aukera-berdintasunik eza, eta bestetik, oinarrizko baliabide zenbait (denbora, zaintza, trebakuntza eta komunikabideak) lortzeko aukera-berdintasunik ezak emakumeen eta gizonen kirol-jardueran zer-nolako ondorioak dituen. Halaber, osasunaren eta kirolaren arteko loturari genero-ikuspegitik erreparatuko zaio.

Kirol-baliabideak: Gizonen kirol-jarduerak, batez ere modalitate ezagunenei dagokienez, onarpen sozial zabal eta luzea duenez, lehentasuna du mota guztietako baliabideen banaketan; ekonomikoetan, materialetan eta giza baliabideetan. Emakumeak, ordea, bigarren mailan daude baliabideak jasotzeko orduan, eta, gainera, lehen kaltetuak dira behar ekonomikoek jardueraren garapena zailtzen dutenean.

Denbora: Emakumeek denbora gehiago eskaintzen diete etxeko lanei eta haurren zaintzari; beraz, gizonek baino denbora gutxiago dute beste jarduera batzuk egiteko; tartean, kirola. Hartara, Denbora-aurrekotuen inkestaren arabera (Eustat), gizonek egunean 18 minutu gehiago eman zituzten kirola egiten emakumeek baino 2018an (gizonek ordu bat eta 37 minutu eta emakumeek ordu bat eta 19 minutu).

Zaintza-lanak: Zaintza-lana ezinbestekoa da bizitzari eusteko; beraz, gizonek eta erakunde publikoek eta pribatuek erantzukidetasun sozial handiagorik izan ezean, emakumeen bizkar jartzen dira zaintza-lanak. Hartara, lanaldi bikoitzak eta hirukoitzak egin behar izaten dituzte emakumeek, beren osasuna eta bizi-kalitatea kaltetzen duten bitartean, eta, jakina, kirol-jarduera baldintzapean egin behar dute.

Alde horretatik, goi-mailako kirolariek egindako ikerlanean¹⁰, adierazgarria izan zen gizonetako batek ere ez ikustea aitatasuna eta zaintza-lanak uztartu beharra goi-mailako kirolari izateko traba gisa. Aldiz, goi mailako emakume kirolarien % 100ek adierazi zuen amatasunak eragin handia zuela bere ibilbidean. Izan ere, adierazitakoaren arabera, «zaila da geratzeko unea aurkitzea goi-mailan arituz gero», haurdunaldiagatik eta kirol-maila berreskuratzeagatik baino gehiago, haurraren zaintza eta bidaiak nahiz txapelketak bateragarri egiteko aukerarik ezagatik. Gainera, aldi horietan laguntza eta babes ekonomikorik ez izateak eragiten duen ezegonkortasun ekonomikoa pairatu behar dute.

Prestakuntza: Ondorengo taulan ikus daitekeenez, emakumeen presentzia % 30etik beherakoa da kirolari eta jarduera fisikoari lotutako prestakuntza akademikoan, hezkuntza mota guztietan: araubide berezian, Lanbide Heziketan edo unibertsitatean.

¹⁰ Basque Teamen azterlan berria lanketa- eta/edo edizio-fasean dago une honetan (2020ko abenduan); hau da, ez da oraindik plazaratu, eta, beraz, ezinezkoa izan zaigu aipatu azterlana kontsultatzea.

2. koadroa. Kirolaren esparruko prestakuntza akademikoetan matrikulatutako ikasleak (2018-2019 ikasturtea).

KIROLAREN ESPARRUKO PRESTAKUNTZA AKADEMIKOETAN MATRIKULATUTAKO IKASLEAK (2018-2019 IKASTURTEA)	Emakumeak (%)	Gizonak (%)	Aldea (%)
Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua	27,2	72,8	-45,6
Goi-mailako LH: Jarduera Fisikoak eta Kirolak	23,7	76,3	-52,6
Erdi-mailako LH: Jarduera Fisikoak eta Kirolak	21,5	78,5	-57,0
Araubide bereziko irakaskuntzak: Kirol Irakaskuntzak	15,3	84,7	-69,4

Guk egindako koadroa. Iturriak: Eskola Jardueraren Estatistika eta Unibertsitateko Estatistika (Eustat, 2020) eta Unibertsitatez Kanpoko Irakaskuntzei buruzko Estatistika (Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa, 2020).

Kirol Eskolaren prestakuntza-eskaintzako parte-hartzeari dagokionez, emakumeen matrikulazioaren ehunekoa txikiagoa da, oraindik ere, gizonena baino. Hala, prestakuntza jarraituko ikastaroetan matrikulatu diren pertsonen % 24,76 ziren emakumeak 2018an; ehuneko hori % 40,87raino igo zen entrenatzaileen prestakuntzan. Gimnastika erritmikoaren kasuan, % 90 baino gehiago dira maila guztietan prestakuntza jasotzen ari diren emakumeak; surf-entrenatzaile izateko prestatzen ari direnak, ordea, ez dira % 10era heltzen.¹¹

Kirolari lotutako ikasketak hautatzen dituztenen artean gehienak mutilak direnez, eta horien parte-hartzea handiagoa denez prestakuntza-jarduera espezializatuenetan, erraz aurreikus daiteke etorkizunean ere gizonen presentzia handiagoa izango dela kirolari lotutako enpleguetan eta etorkizun hobea izango dutela jarduera horietan emakumeek baino. Hala, kirol-inguruneak maskulinizatuta jarraituko du aurrerantzean ere; alegia, emakume gutxiegi egongo dira.

Hedabideak: Komunikabideek ez diote tratamendu bera ematen emakumeen kirolari, eta horrek bi ondorio ditu. Batetik, ikuspegi androzentrikoak eragindako ikusgarritasunik eza (gizon kirolarien nonahikotasuna); emakumeei ez zaie arretarik eskaintzen edo arreta gutxi eskaintzen zaie. Hala, *Emakumeen kirola: presentzia eta trataera orotariko euskal prentsan eta kirol-egunkarietan. 2015-2016 denboraldiaren azterlana* izeneko lanak emakume-kirolari buruzko berriak nola tratatzen diren aztertzen du, 2015-2016 aldiko hedabide idatzietan. Bertan adierazten denez, kirolaren inguruko 15.800 berri argitaratu ziren aldi horretan; bada, horietatik 1.017 berri emakumeei buruzkoak ziren hertsiki (% 6,4). Bestalde, % 9,58 berri emakume kirolariak, emakume taldeak eta emakumeen ligak aipatzen zituzten uneren batean. Era berean, emakumeen titularren, argazkien edo aldizkari-azalen kopuru txikiagoak, informazioaren

¹¹ Datuok Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Berdintasunerako Administrazio Unitateak eskainitakoak dira (jatorrizko iturria: Kirol Eskola).

garrantziarekin loturiko elementuak izanik, agerian uzten du zer-nolako tratamendua jasotzen duten kirolaren esparruan lan egiten duten emakumeek.

Emakumeen kirolaren ikusgarritasunik ezak, funtsean, emakume kirolariei eta beren ahalegin nahiz lorpenei gizarte-aitorpenik ez ematea dakar, baina, gainera, horrek dakarren erreferentzia positiboan gabetasunak gainerako emakumeek gizarte-indargarririk ez edukitzea dakar. Hain zuzen ere, gizarte-indargari hori nesken kirol-uzte goiztiarra prebenitu eta geldotzeko baliagarria izan liteke, bai eta gizon-emakumeen kirol-jarduera dibertsifikatua eta ez-estereotipatua sustatzeko ere.

Bestetik, hainbat estereotipo transmititzen dituzte. Estereotipo horien araberakoak dira emakumeen agerpenak; alegia, tratamendu-desberdintasuna betikitzen duten genero-errepresentazioen araberakoak. Emakumeak komunikabideetan agertzen direnean, oraindik ere zenbait balio eta ideia nabarmentzen dira, emakumeen kirola gutxien dutenak, emakume kirolarien bazterketa azpimarratzen dute-eta. Era berean, emakumeen agerpenetan arinkeria eta sexualizazioa nagusitzen dira.

Osasuna: Zalantzarik gabe, ariketa fisikoa egitea bizitza-ohitura osasungarria da pertsona guztientzat. Egiaztatuta dago kirola egiteak onurak dakarziola organismoari, bai fisikoak, bai psikologiko zein sozialak. Izan ere, kirola egiten dutenek beren osasun-egoerari buruz iritzi hobea dute, ongizate handiagoa izatearen sentipena edukitzeaz gain. Kirolak eragin positiboa duenez bizikalitatean, beharrezkoa da pertsona guztiek kirola egin dezatela sustatzea, eta, batez ere, emakumeek, kirol gutxien egiten dutenak baitira.

Kirol-jarduerak onura ugari dakartza, baina ezin da aipatu gabe utzi kirol-errendimenduari loturiko eskakizunek, muturreko eta kontrol-gabeziako kasuetan osasuna kaltetu dezaketenean ohiturak sor ditzaketela; esaterako, dopin substantziak kontsumitzea, elikadura nahasmenduak, bigorexia eta abar. Horiek guztiak genero-ikuspegitik aztertu beharko lirateke.

Batetik, dopinaren kontrolari dagokionez, ez dago alde handirik bi sexuen artean; 2018an Estatuko kirolariei hartutako lagin negatiboan kopurua antzekoa izan zen emakumeen eta gizonen artean, lehiaketetan nahiz lehiaketetatik kanpo (emakumeen % 99,5, gizonen % 98,9). Dena den, ez dago informaziorik dopinak emakumeengan dituen ondorio zehatzen gainean. Eragin horiek kontsumitutako substantzien araberakoak dira, bai eta hartutako substantziei eta pertsona bakoitzaren baldintzei loturiko beste aldagai batzuen araberakoak ere. Bestetik, ez dago ikerketa sistematizatutako kirolarien elikadura-nahasmenduen inguruan, genero-ikuspegia kontuan hartuta. Hala ere, gaiaren inguruan egindako azterlanek erakutsi dutenez, elikadura-nahasmenduen prebalentzia handiagoa da emakume kirolarien artean gizon kirolarien artean baino. Horrez gain, zera adierazten dute: elikadura-nahasmenduak ohikoagoak dira estetikak garrantzia duen

kiroletan (kulturismoan, gimnastikan, patinaje artistikoan) edo pisuak garrantzia duenetan (borrokan, arraunean, hipikan)¹².

¹² National Eating Disorders Association-en (NEDA) aipua. Jatorrizko iturria: *Sport nutrition for coaches* (Bonci, 2009).

2.3. EMAKUMEEN ETA GIZONEN PARTE-HARTZE DESBERDINA

Emakumeek ez dute gizonak bezainbeste parte hartu kirol-ekintzetan eta egun ere joera horri eusten zaio. Ez da ausazko gertakari bat, ez eta isolatua ere; alegia, emakumeen presentzia txikiagoa da publikotzat hartu diren esparru guztietan; esaterako, lan-munduan, politikagintzan eta kulturgintzan, besteak beste. Kirola ere esparru publiko horietako bat da, batez ere lehia-kirola.

Horren harira, erakunde-mailan gertatzen dena aipatu behar da, oso txikia baita emakumeen ordezkartza, batez ere kirol-kontseilu eta -batzordeetan eta kirol-federazioen zuzendaritzetan.

Erabakiguneetan emakume gutxi daudenez, eta kirolaren inguruko egiturak maskulinoak direnez, emakumeak nahi baino astiroago heltzen dira kirolera.

Zuzendaritza-kargu publikoak

Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzetan eta foru-aldundietan, gaur egun, orekatua da zuzendaritza-postuetan dauden gizon-emakumeen kopurua; izan ere, 4 zuzendarietatik 2 emakumeak dira eta beste 2ak gizonak. Modu horretan, Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzako burua gizon bat da, bai eta Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko burua ere (lehen zuzendaritza bigarrenaren barruan dago).

Foru-aldundiei dagokienez, Gipuzkoako Kiroletako zuzendari nagusia emakumezkoa da, eta Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kiroleko diputatua, aldiz, gizonezkoa. Araban, Kiroletako zuzendaria emakumezkoa da, bai eta Kultura eta Kiroleko diputatua ere. Bizkaian, azkenik, Kiroletako zuzendari nagusia gizonezkoa da, eta Euskara, Kultura eta Kiroleko diputatua, aldiz, emakumezkoa¹³.

Kontsulta- eta aholku-organoak

Jarraian ageri den taulan ikusten denez, aztertu ditugun hiru organoetako bakarrean betetzen dira 4/2005 Legean zehazten diren oreka-parametroak (sexu bakoitzak gutxienez % 40ko ordezkartza izatea).

¹³ Institutio bakoitzaren webgunetik ateratako informazioa.

3. koadroa. Kontsulta- eta aholku-organoen osiera sexuaren arabera.

Organoak	Emakumeak (%)	Gizonak (%)	Presidentea
Kirolaren Euskal Kontseilua (1)	41,2	58,8	Gizona
Kirol Justiziako Euskal Batzordea (2)	33,3	66,7	Emakumea
Kiroleko Indarkeriaren Aurkako Euskal Batzordea (3)	28,6	71,4	Gizona

Guk egindako koadroa, EHAak aipatutako organoen gainean emandako aginduen arabera.

Kirol Federazioen Zuzendaritza Batzordeak

Hasteko, datu garrantzitsu bat azpimarratu behar dugu: EAEn 47 federazio zeuden 2020an, baina bakar batean ere ez zegoen emakume presidenterik¹⁴. Eguneratutako datu gehiagorik ez dagoenez, *Berdintasunean lanean EAEko federazioen esparruan: gogoeta gidatuz, ekintzara igarotzeko* (Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, 2016) dokumentura jo dugu. Bertan zehazten denez, emakumeak % 15,66 ziren EAEko kirol-federazioetako zuzendaritza-batzordeetan, 2011ko datuen arabera. Datuek, beraz, agerian uzten dute emakumeek zailtasun handiak dituztela kirol-federazioetako egitura maskulinizatuetan sartzeko.

Zuzendaritza-batzordeetan emakumeen presentzia hain urria dela ikusita, 2012an araudi bat sortu zen EAEko kirol-federazioen hautes-erregelamenduak arautzeko¹⁵. Araudiaren arabera, hautagai-zerrendako kideen % 40 gutxienez emakumeak edo gizonak izan behar dira, edota, gutxienez, gutxien ordezkatutako sexu lizentzia-ehunekoa baino gehiago. Gainera, ezarritakoaren arabera, berdinketarik balego, irabazlea emakume bat buru duen zerrenda izango da.

Kirol-asoziazionismoa eta -boluntariotza

Kirola eta jarduera fisikoa 2017 azterlanaren arabera, EAEko emakumeen % 15 dira kirol-elkarte edo -klubetako kide edo bazkide; gizonak, ordea, % 34 dira (19 puntuko aldea). Era berean, emakumeen % 10 eta gizonen % 15 aritzen da kirol-jarduerak sustatzeko boluntariotza-lanen batean. Horrenbestez, gizonen artean ohikoagoa da kirol-elkarte edo -klubetako kide izatea emakumeen artean baino; hala ere, genero-arrakala txikiagoa da boluntariotza-lanen kasuan. Intereseko informazioa den arren, oraindik ere ezinezkoa da kirol-kluben eta kirol-taldeen erregistroetako datuak biltzea emakumezko eta gizonzko kide sortzaileen ehunekoei loturik.

¹⁴ Datuok Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Berdintasunerako Administrazio Unitateak eskainitakoak dira.

¹⁵ Kulturako sailburuaren 2012ko otsailaren 19ko Agindua, EAEko kirol-federazioen eta lurralde-federazioen hauteskunde-erregelamenduak prestatzeko eta hauteskundeak egiteko irizpideak finkatzen dituena.

2.4. GIZARTE-ARAUEN ETA BALIOEN ERAGINA

Gizarte-arauen eta estereotipoen eragina oso nabarmena da kirol-arloan; izan ere, aurreko analisietan ikusi denez, kirol-jardueren segregazio horizontala sortzen eta birsortzen du. Kirol-ekintzan eta erakundeetan nagusi den androzentrismoa eta emakume kirolariek gizarte-aitorpenik ez jasotzea, horiek dira emakumeak lehia-jarduerara hurbiltzeko eta horrekiko interesa izan dezaten dauden trabak. Gainera, emakumeen ibilbide profesionala eta pertsonala oztopatzen dituzte arlo horretan. Kirolaren alde ilunena, esparru guztietan bezala, emakume-irudiaren erabilera sexual eta sexistan datza, bai eta sexu-jazarpen eta abusu sexualean ere.

Gizon-emakumeen portaeraren gaineko gizarte-eraikuntzek kirolaren esparruko hautuak eta kirol-jarduerak baldintzatzen dituzte. Neska-mutilen genero-sozializazio goiztiarrak askotariko ondorioak ditu. Besteak beste, eragin nabarmena du **kirol-modalitate jakinen hautuan eta praktikan**, eta, ondorioz, gizonak ala emakumeak nagusitzea dakar. Hala, segregazio horizontala betikitzen da, eta pertsona orok edozein kirol-modalitate askatasunez hautatzea eta egitea oztopatzen da. Kasurik muturrekoenetan, sexu bateko edo besteko pertsonen lehiatzea debekatu ere egiten zaie.

Esaterako, 2012ko Londresko Olinpiar Jokoetara arte itxoin izan behar dute emakumeek boxeoa aritzeko. Halaber, teniseari, lehenengoz jokatu da binakako mistoaren modalitatea. Dena dela, oraindik ere badago diziplina baztertzailerik; esaterako, gimnastika erritmikoa eta igeriketa sinkronizatua, emakumeen parte-hartzea baino ez dutenak onartzen.

Olinpiar Jokoetatik harago, nabarmentzekoa da 2019ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoetan mutilak ez zutela parte hartu gimnastika erritmikoan (dagoeneko eman ditugu Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen gaineko datu orokorrak sexuaren arabera). Modu horretan, badirudi mutilak denbora gehiago behar izaten ari direla nesken zatitza josten diren kiroletan sartzeko, aurkako kasuan baino: ziur aski, norabide horretan erresistentzia sozialak are handiagoak direlako izango da.

Kirola egiten duten gizonak eta emakumeak **aitorpen eta indargarri sozial oso desberdinak** jasotzen dituzte. Gizonak familiaren, erakundearen, gizartearen eta komunikabideen babes handia jasotzen duten bitartean, kirol-ekintzan eta lehiaketetan hasteko, aurrera egiteko eta arrakasta izateko lagungarri zaiena, emakumeek traba asko eta askotarikoak gainditu behar dituzte kirolera sartzeko, kirolari izateko eta merezi duten aitortzea jasotzeko. Zentzu horretan, emakumeek zailtasun handiagoak dituzte babesletza pribatua lortzeko, eta aukera gutxiago postu teknikoetan lan egiteko lehiatzaile-bizitza amaitu ondoren. Horrek guztiak emakume kirolarien ibilbidea nabarmen oztopatzen du, eta, aldi berean, hurrengo belaunaldien etorkizun-aurreikuspenak belzten ditu.

Halaber, emakume kirolariak komunikabideetan ez agertzeak emakumeen parte-hartzea eta etorkizun-aurreikuspenak kaltetzen ditu. Oihartzun sozial handiko emakume kirolari profesional gutxi egoteak eragin negatiboa

dauka gainerako emakumeengan; izan ere, nekez proiektatuko dute beren burua etorkizuneko kirolari ospetsu moduan. Gauza bera gertatzen da emakume entrenatzaile, arbitro eta kudeatzaileekin; izan ere, eredu gutxi dagoenez, mugak izaten dituzte ibilbide profesionala hautatzean.

Azkenik, kirol-arloan mutilek hainbat eredu sozial dituzten arren, modelo horiek ez dira edozein kiroletakoak, gizarte-rol maskulinoei loturikoak baizik. Ondorioz, rol horiek apurto eta aurre-ezarritako ereduak ez jarraitzea oso zaila gertatzen zaie erabaki hori hartzen dutenei.

Emakumeek kirol bat edo bestea mendera dezaten, **ezinbestekoa** da gizonen eta gizonentzat egindako **kirola egokitzea**. Kirol-arloa tradizio maskulinokoa da, eta desberdintasun biologikoak kontuan izanda gutxieneko egokitzapen batzuk egin badira ere, emakumeek eremu horretan sartzen joan dira.

Desberdinak dira **gizonen eta emakumeen kirola egiteko arrazoiak**. Badirudi emakumeek ariketa egitea lehenesten dutela kirol-jarduera bat hasi eta hautatzerakoan; ondo sentitzea, taldean egitea eta sasoian egotea, lehia-ezaugarriak baino. **Aisialdiko edo lehiaketa mailan egiten den kirol-jarduerari** dagokionez, *Kirola eta jarduera fisikoa 2017* azterlanak dio emakumeen artean ohikoagoa dela kirola lehia-asmorik gabe egitea. Hain zuzen ere, emakumeen % 84k eta gizonen % 74k egiten dute kirola lehia-asmorik gabe; emakumeen % 8k eta gizonen % 13k lehiatzen dute lagunekin, dibertitzeko asmoz; eta emakumeen % 7k eta gizonen % 12k parte hartzen dute kirol-ligetan edo -lehiaketetan.

Horrek azaltzen du, neurri batean, zergatik emakume ugari, lehiakoa ez den kirol-eskaintza urriaren aurrean, ez duten egin kirolik eskolaz kanpo; eta, bestetik, zergatik utzi duten kirol federatua beste emakume askok. Era berean, horrek guztiak azal lezake zergatik nahiago duten emakumeek ibiltzea, aerobic-a, dantza edo pilatesa.

Lehenago adierazienez, gizonen kirol-jarduera gehiago eta maizago egiten dute emakumeek baino (13 puntuko alde kirol bat edo gehiago egiten dituztenen artean, 8,3 puntuko alde astean behin kirola egiten dutenen artean, eta, neurri apalagoan, 4,5 puntuko alde egunero kirola egiten dutenen artean). Datu hori, bada, hainbat faktoreekin lotu genezake; besteak beste, **eguneroko beste ekintza batzuei eskaintzen zaien denborarekin**. Denbora Aurrekontuen Inkestaren arabera (Eustat, 2019), ez dago apenas alde esanguratsurik –maila kualitatiboari dagokionez– EAEko emakumeek eta gizonen aisia aktibo eta pasiboan egiten dituzten ekintza nagusien artean. Dena den, aldeak oso nabarmenak dira sexu biek egunerokoan aisialdiari eskaintzen dizkieten orduak eta minutuak aztertzen baditugu. Emakumeek etxeko lanei eta haurren zaintzari denbora gehiago eskaintzen dietelako gertatzen da hori. Gizon-emakumeek aisia pasiboari eskaintzen diote denbora gehien beren aisialdian; hots, irakurketari, telebistari eta irratitari. Bigarren postuan, ordea, ibilaldiak eta txangoak daude, baina hainbat postu beharago ageri da kirol-jarduera.

Auto-zaintza fisikoaren eta edertasun kanonen betekizunen eragin handiagoa nabari da emakumeen kirol-jardueran. Zentzu horretan, lehenago aipatu dugunez, ariketa fisikoa egiten duten emakumeek sasoiari egoteko (% 32,7) egiten dute gehienbat, eta, neurri txikiagoan, dibertitzeko edo entretenitzeko (% 18,4). Kirola egiten duten gizonak, ordea, dibertitzeko edo entretenitzeko (% 27,6) nahiz sasoiari egoteko (% 27) egiten dute.

Lehia-kirola kirol-ekitaldiak antolatzean eta horien gaineko komunikabideen jarraipenean oinarrituta egoteak emakumeek horiei arreta txikiagoa eskaintzearen arrazoia izan daiteke. Hartara, *Kirola eta jarduera fisikoa 2017* azterlanaren arabera, EAEko gizonak **gehiago jarraitzen dute kirola komunikabideen bitartez**, eta **gehiagotan joaten dira kirol-ekitaldietara**. Alde batetik, emakumeen % 49k maiztasunez¹⁶ ikusten ditu kirol-programak komunikabideetan; gizonen kasuan, ordea, % 74ra igotzen da ehunekoa. Era berean, emakumeen % 41ek eta gizonen % 72k maiztasunez jarraitzen dituzte kirolen inguruko berriak komunikabideetan. Bestalde, emakumeen % 49 eta gizonen % 65 joan da kirol-ekitaldiaren batera azken urtean zehar.

Kirol-ekitaldi motari dagokionez, emakumeak gutxiagotan joaten dira kirol profesional eta federatuko ekitaldietara (kirol profesionala: emakumeen % 63, gizonen % 85; kirol federatua: emakumeen % 57, gizonen % 68). Nolanahi ere, herri-probetara joaten diren pertsonen dagokionez, emakumeen eta gizonen ehunekoa bera da (% 57). Emakumeak, gainera, zertxobait gehiago joaten dira eskola-kiroleko lehiaketa edo ekintzetara (% 55 emakumeak, % 48 gizonak)¹⁷. Azken datu horrek, beste behin, lotura zuzena du seme-alaben zaintzarekin.

Zentzu horretan, ziur aski, ekitaldien antolaketa eta horien gaineko komunikabideen jarraipena lehia-kirolera bideratuta egoteak, eta parte-hartzaileak emakumeak baizik ez diren kirol-ekitaldi gutxiago antolatzeak eta horiek komunikabideetan ez agertzeak, eragiten du emakumeak kirol-ekitaldietan hain interesatuta ez egotea.

Gizonek emakumeei egindako sexu-jazarpena eta sexu-abusuak kirolaren esparruan

Nazioarteko Olinpiar Batzordeak *Sexu-jazarpenari eta Abusuei buruzko Adostasun Dokumentua 2006* izeneko lanean adierazten denez, **kirolaren esparruan gertatzen diren sexu-jazarpen eta sexu-abusuak** edozein kiroletan eta edozein mailatan gertatzen dira, eta botere-harremanen eta -abusuen ondorio dira.

Ondorioztatzen denez, emakume kirolariak dira sexu-jazarpena, jazarpen sexista eta abusuak pairatzeko arrisku handiena duten subjektu nagusiak. Hala ere, entrenatzaileak, arbitroak, zuzendaritza-kideak eta kirolaren arloko beste funtzio batzuk betetzen dituzten emakumeak ere pairatu ditzakete edo pairatzen dituzte.

¹⁶ Kirol-programak «maiztasunez» ikusten dituzten pertsonen ehunekoa kalkulatzeko, «egunero edo ia egunero» eta «astean behin gutxienez» erantzunak hartu dira kontuan.

¹⁷ Urtean behin gutxienez.

Nazioarteko Olinpiar Batzordearen arabera, gizonezko taldekideak, zuzendariak, langile mediko-zientifikoak, etab. erabat bazterten ez badira ere, entrenatzailea da indarkeria-ekintza hauen egile nagusia, emakume kirolariek harreman estua edukitzeaz gain, haien eredu nagusia ere badelako. Emakume kirolariek beren entrenatzaileekin entrenamenduetan igarotzen duten denborak, lehiaketek eta bidaiek intentsitate handiko harremanak garatzea errazten dute. Harreman horren intentsitatearen ondorioz, emakumeak zaugarri bilakatzen dira sexu-jazarpena eta abusua pairatzeko unean; emakume kirolariek konfiantza osoa dute entrenatzailearengan, laguntzaile emozionaltzat eta hezitzailetzat dute-eta. Horrek, bada, zailtasunak sor ditzake jarrera onargarria zein den eta zein ez den identifikatzean. Arrisku-egoera deritze aldagelei, kirol-instalazioei, bidaiei, entrenatzailearen autoari edo etxeari eta alkohola kontsumitu ohi den ekitaldi sozialei (talde-aurkezpenak edo denboraldi amaierako ospakizunak, besteak beste).

Marta Antúnez egileak (2009) gizonezko zuzendari eta kazetari espezializatuak nabarmentzen ditu, dela konplizitateagatik –egoerak minimizatuz edo saihestuz–, dela emakume kirolariak erruduntzat hartzeko joeragatik, dela emakume kirolarien janzkera edo gorputz-jarrerak azpimarratzeagatik.

Kirolaren eremuan, hedabideek **emakumeen irudiaren erabilera sexuala eta sexista** egiten dutela ikusten dugu oraindik. Hala, emakumeek egindako kirolaren inguruko informazioa zabaltzean, komunikabideek estereotipo sexistaz beteriko irudia eman ohi dute, errealitatearen bat ez datorrena. Gainera, emakumetasuna nabarmendu ohi dute kirolaria bera nabarmendu beharrean, eta emakume kirolariak ikur erotiko gisa aurkeztu ohi dituzte, eta ez, ordea, kirolaren munduko idolo gisa. Batez ere online komunikabideetan gertatzen da hori. Era berean, komunikabideak eta publizitatea direla medio, kirol-babesleek emakume kirolari askoren erakargarritasun sexuala ustiatzeari ekiten diote, beren kirol-lorpenak alde batera utzita.

Kirol-federazio askok, kirola erakargarriago bihurtzeko eta emakume kirolariak «femeninoagoak» izan daitezen, arropa labur eta estuak erabiltzeko agintzen diete jokalariei. Joera hori sexista eta matxista da, kirola egiteko deserosoa izateaz gain.

Horrez gain, ekitaldi handiak aldaketei bidea ematen saiatu diren arren eta egoerak hobera egin duen arren, diziplina batzuetako kirol-ekitaldiek emakumeak erabiltzen dituzte, oraindik ere, gizonezko kirolariei lagun egiteko, horiek animatzeko eta/edo zorientzeko. Hau da, emakumeen irudia sexu-objektu huts gisa erabiltzen dute publizitatea egiteko. Hala egin izan da maiz automobilismoan, motoziklismoan, tenisean, txirrindularitzan, eta abar. Hala ere, hainbat aurrerapauso ikusi dira zentzu horretan. Adibidez, 1 Formulako lehiaketatik emakumezko laguntzaileak desagertu ziren 2018an, eta 2017an, gizonezko laguntzaileak kontratatzearen alde egin zuen

Espainiako Vueltak. Geroztik, 2020an, emakumezko eta gizonezko laguntzaileen aukera mistoa abiarazi zuen Frantziako Tourrak ere.

Kirol-arloko sexu-jazarpenak eta abusuak eragin larri eta negatiboak izan ditzake kirolarien osasun fisiko eta psikologikoan; ondorioz, emaitzak txarragoak dira eta bazterketa pairatu ohi dute. Era berean, kirola uztea ere gerta liteke.

Kirolean emakumeen aurkako sexu-jazarpena eta abusuak prebenitzeko gida (Emakunde, 2015) lanean adierazten denez, hainbat ikerketek agerian jarri dituzte neskek eta emakumeek kirolaren esparruan pairatzen dituzten sexu-jazarpena eta abusuak. Tradizioz gizonak nagusitzen diren kirolean, gainera, jazarpen- eta abusu-indize handiagoa antzeman da. EAEn ez da gaiaren inguruko ikerketarik egin.

Hala ere, Katalunian Jarduera Fisiko eta Kirol Zientzietako graduako emakume ikasle kirolarien kasua aztertzen duen lan batek (Martín eta Juncà, 2014) erakusten duenez, hauek dira gizonezko entrenatzaileen portaera ohikoenak: kontaktu-fisikoa (kirolariari sorbalda ukitzen dio entrenamenduan zehar, sorbalda ukitzen dio agurtzean, besarkatu egiten du irabaztean, muxu ematen dio masailean, asko hurbiltzen zaio entrenamenduan); entrenatzailearen bizitza pertsonalari buruzko iruzkinak (aisialdian zer egiten duen azaltzen dio kirolariari, astebururako zer plan pertsonal dituen azaltzen dio); kirolariaren bizitza pertsonalari buruzko galderak (asteburuko planen inguruan galdetzen dio kirolariari), entrenamenduetatik kanpoko proposamenak (kafe bat hartzera gonbidatzen du) edo fisikoaren inguruko iruzkinak (kirolariaren itxura fisikoa lausengatzen du).

Azkenik, kirol-esparru maskulinizatuan erabili ohi den **hizkuntza** nabarmendu behar da, sexu-jazarpena eta jazarpen sexista ekar ditzake-eta. Hizkuntza horretan nagusitzen dira, besteak beste, estereotipo sexistak, hitz itsusiak eta emakumeak gutxiesten dituzten esamoldeak. Ahozko jarrera horiek pertsonen duintasunaren eta integritate fisiko eta psikologikoaren kontrako eraso gisa tipifikatuta daude indarrean dagoen erkidegoko araudian. Jarrera horiek, gainera, jarduera –kasu honetan kirol-jarduera– garatzeko baldintzak degradatzea ekar dezakete.

2.5. BERDINTASUNAREN ARLOKO AGINDU ESPEZIFIKOAK

BERDINTASUNAREN ARLOKO AGINDUAK	ARTIKULUA/ARAUAK
EAEko administrazio publikoek neurri egokiak hartu behar dituzte kirol-modalitate guztietan emakumeek eta gizonek tratu- eta aukera-berdintasuna izango dutela bermatzeko.	4/2005 Legearen 25.3 art. 3/2008 Lege O. 29.2 art. 14/1998 Legearen 2.3 art. 2002/2280 Ebazpenaren 3. eta 27. eranskinak
Debekatuta dago emakumeek gizonekiko berdintasunean parte hartzea onartzen ez duen edo oztopatzen duen kirol-jarduerarik antolatzea eta egikaritzea gune publikoetan.	4/2005 Legearen 25.1 art.
Debekatuta dago sexu-bereizkeria ezaugarriak dituzten kirol-jardueretara EAEko administrazio publikoek ordezkariak bidaltzea.	4/2005 Legearen 25.2 art.
Emakume eta gizonen arteko berdintasun erreal eta benetakoaren irizpideak txertatzea kirola garatzeko egitasmo publiko guztien diseinuan eta egikaritzean.	125/2008 Dekretua, EAEkoa 3/2007 Lege Organikoaren 29.1 art. 203/2010 Dekretuaren 29.3 art.
Emakumeen kirol-baliabideetarako (aisialdiko eta lehiaketako kirol-ekintzak, instalazioak, etab.) sarbidea bermatu eta areagotzea, talde eta behar askotarikoak aintzat hartuta.	Nizako Adierazpenaren IV. eranskina CEMRren Europako Gutunaren 20. art. OO 2.2.1 VII. EGBP
Emakumeen nahiz gizonen kirol-jardueren babesletza sustatzea, bietako edozein gutxiengoa den modalitateetan.	4/2005 Legearen 25.4 art.
Emakumeak gehiengoa diren kirol-modalitateentzako laguntza publikoak handitzea.	4/2005 Legearen 25.4 art.
Sexuagatiko bereizkeria dakarten kirol-jarduerak laguntzea debekatuta dago.	4/2005 Legearen 25.2 art. 2002/2280 Ebazpenaren 42. eranskina

Gorputz Hezkuntzako irakasleen eta kirol-entrenatzaileen prestakuntza genero-ikuspegia txertatzea.	2002/2280 Ebazpenaren 19. eta 25. eranskinak 203/2010 Dekretuaren 17.1 art.
Kirol Federazioek emakume eta gizonen arteko berdintasunerako ekintza positiboko planak osatu, onartu eta gauzatu ditzaten, laguntza teknikoa eta bitartekoak eskaintzea.	16/2006 Dekretuaren 170. art.
Emakumeek eta gizonak erantzukizun postuetan eta erabakigunetan ordezkariak izatea sustatzea. .	4/2005 Legearen 24.1 art. 3/2007 Lege O. 29.2 art. 203/2010 Dekretuaren 28.2 art. 2012ko otsailaren 19ko Arauaren 60.4 art. 2002/2280 Ebazpenaren 42. eranskina NOBren Los Angelesko Batzarra OO 2.3.3 VII. EGBP
Kirol-arloko sexu-jazarpena eta abusua prebenitzera bideratutako neurriak hartzea.	2002/2280 Ebazpenaren 40. eranskina

OHARRA: Garraioaren eta mugikortasunaren eremuko berdintasun-manu espezifikoek gain, modu orokorrean sektore guztietan aplikagarri diren berdintasunari buruzko aginduak ere aztertu behar dira; horiek guztiak, generoaren arabera eraginari buruzko txostenak egiten lagundu duten materialetako [alderdi juridikoei buruzko dokumentuan](#) aurki daitezke.

3. LEGEDIA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKOA
<u>4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako</u>
<u>14/1998 Legea, ekainaren 11koa, Euskadiko Kirolarena</u>
<u>16/2006 Dekretua, urtarrilaren 31koa, Euskadiko Kirol Federazioena</u>
<u>125/2008 Dekretua, uztailaren 1ekoa, Eskolako Kirolari buruzkoa</u>
<u>163/2010 Dekretua, ekainaren 22koa, Kirol Klub eta Kirol Elkarteei buruzkoa</u>
<u>203/2010 Dekretua, uztailaren 20koa, Goi Mailako Kirolari buruzkoa</u>
<u>Kulturako sailburuaren 2012ko otsailaren 19ko Agindua, EAEko kirol federazioen eta lurralde-federazioen hauteskunde-erregelamenduak prestatzeko eta hauteskundeak egiteko irizpideak finkatzen dituen</u>
<u>391/2013 Dekretua, uztailaren 23koa, eskola kiroleko lehiaketen diziiplina araubideari buruzkoa</u>
<u>EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana</u>
<u>12/2012 Legea, ekainaren 21ekoa, Kiroleko Dopinaren aurkakoa</u>
<u>1/2018 Legea, ekainaren 7koa, Kiroleko Dopinaren aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legea aldatzeko</u>
<u>Gobernu-programa XII. legegintzaldirako</u>
<u>Genero ikuspegia txertatzeko estrategia 2017-2020</u>
ESTATUKOA
<u>3/2007 Legea, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen artean benetako berdintasuna lortzeko</u>
<u>Kirola eta Ariketa Fisikoa Sustatzeko Plan Integrala</u>
EUROPAKOA
<u>Kirolaren berriazko ezaugarriei eta Europan duen gizarte-funtzioari buruzko adierazpena, politika erkideak aplikatzean kontuan hartu beharrekoa (Nizako Europako Kontseilua, 2000ko abenduak 7-10)</u>
<u>Kirolari buruzko Liburu Zuria (Europako Batzordea)</u>
<u>Genero-berdintasuna kirolean, ekintza estrategikoetarako proposamena 2014-2020. Europar Batasuna</u>
<u>Genero-berdintasunerako Estrategia, 2020-2025. Europako Batzordea.</u>

2002/2280 (INI) Ebazpena, Emakumeei eta Kirolari buruzkoa. Europako Parlamentua.

Tokiko bizimoduan gizonen eta emakumeen berdintasuna lortzeko Europako Gutuna. Europako Udalerri eta Eskualdeen Kontseilua (CEMR).

NAZIOARTEKOA

Kiroleko Sexu-jazarpenari eta Abusuei buruzko Adostasun Adierazpena, Nazioarteko Olinpiar Batzordearena (NOB).

Emakumeari eta Kirolari buruzko Brightoneko Adierazpena, Emakumeak eta kirolari buruzko Nazioarteko Lantaldearen 6. Batzarrean onetsia, 2014ko ekainaren 12tik 15era Finlandian egindakoan

4. DATU-ITURRIAK

FUNTSEZKO ADIERAZLEAK ETA DATUAK	ITURRIA	ALDIZKAKOTASUNA
<ul style="list-style-type: none"> • Pate-hartzea sexuaren arabera. • Parte-hartzea kirolaren eta sexuaren arabera. 	<p>Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen estatistikak 2019</p> <p>Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza (2019)</p>	Urtean behin
<ul style="list-style-type: none"> • EAEko kirol-federazioetan lizentzia duten emakumeen eta gizonen kopurua. • EAEko kirol-federazioen zuzendaritza-batzordeen kideak, sexuaren arabera. 	<p>EAEko kirol-federazioei buruzko datuak, 2020</p> <p>Datuok Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Berdintasunerako Administrazio Unitateak eskainitakoak dira.</p>	
<ul style="list-style-type: none"> • Kirolarien lizentzia federatuak. Sexuaren araberrako xehakapena 2016. 	<p>2011-2016ko lizentzien historikoa</p> <p>Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saila</p>	
<ul style="list-style-type: none"> • Basque Teameko kirolariak Olinpiar Jokoetan sexuaren arabera. 2008-2018 urteak. 	<p>Basque Teameko kirolariak Olinpiar eta Paralinpiar Jokoetan.</p> <p>Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Berdintasunerako Administrazio Unitateak eskainitako datuak (jatorrizko iturria: Basque Team).</p>	
<ul style="list-style-type: none"> • Basque Teameko kirolariak sexuaren arabera (bekadunak). 2008-2019 urteak. 	<p>Basque Teameko kirolariak</p> <p>Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Berdintasunerako Administrazio Unitateak eskainitako datuak (jatorrizko iturria: Basque Team).</p>	
<ul style="list-style-type: none"> • Kirol-jardueraren maiztasuna sexuaren arabera. • Kirola egiteko arrazoi nagusiak. 	<p>Espainiako kirol-ohiturei buruzko inkesta 2015</p> <p>Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa (2015)</p>	Bost urtean behin
<ul style="list-style-type: none"> • Goi-mailako kirolariak, teknikariak eta epaileak. 2020. urtea. 	<p>Goi-mailako kirolariak, teknikariak eta epaileak</p> <p>Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza (2020)</p>	

<ul style="list-style-type: none"> • Urteko batez besteko enplegua kirol-lanbide edo -jarduera jakinetan, sexuaren, adin-taldearen eta ikasketamailaren arabera. 	<u>Biztanleria Aktiboaren Inkesta 2019 (Kirol Estatistiken Urtekaritik ateratakoa, 2020).</u> EIN (2020)	Urtean behin
<ul style="list-style-type: none"> • Parte-hartzaile bakoitzaren batez besteko denbora, aisialdi aktiboaren, egunaren eta sexuaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2018. • Parte-hartzaile bakoitzaren batez besteko denbora, aisialdi pasiboaren, egunaren eta sexuaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2018 	<u>Denbora Aurrekontuen Inkesta Eustat (2019)</u>	Bost urtean behin
<ul style="list-style-type: none"> • Jarduera fisikoaren maila 15-69 urteko populazioan (IPAQ). 2017 	<u>Espainiako Osasun Inkesta Nazionala 2017 (ENSE). Jarduera fisikoa, atsedena eta aisia</u> Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizate Ministerioa (2018)	Bost urtean behin
<ul style="list-style-type: none"> • EAEn zenbat ikasle dauden Lanbide Heziketan matrikulaturik, graduka eta familia profesionalaka, eta lurralde historikoaren eta sexuaren arabera. 2018-2019. 	<u>Eskola Jardueraren Estatistika</u> Eustat (2020)	Urtean behin
<ul style="list-style-type: none"> • EAeko unibertsitateetan graduko ikasketetan matrikulatutako ikasleak, titulazioaren, lurralde historikoaren eta sexuaren arabera. 2018-2019. 	<u>Unibertsitate-estatistika</u> Eustat (2020)	Urtean behin
<ul style="list-style-type: none"> • Erdi mailako kirol-ikasketetan matrikulatutako ikasleak autonomia-erkidego/probintziaren, titulartasunaren eta sexuaren arabera. 	<u>Unibertsitateaz kanpoko Irakaskuntzei buruzko Estatistika. Araubide bereziko irakaskuntzak</u> Hezkuntza eta Lanbide Heziketa Ministerioa (2020)	Urtean behin
<ul style="list-style-type: none"> • Prestakuntza jarraituko matrikulazioak sexuaren arabera. 2018. urtea. • Entrenatzaile-ikastaroetako matrikulazioak sexuaren arabera. 2018. urtea. 	Kirol Eskolako matrikulazioen estatistikak 2018 Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Berdintasunerako Administrazio Unitateak eskainitako datuak (jatorrizko iturria: Kirol Eskola).	
<ul style="list-style-type: none"> • Kontrol motaren arabera aztertutako lagin fisiologikoak sexua eta emaitza kontuan hartuz. 2018. urtea. 	<u>Dopinaren Kontrolari buruzko Estatistika</u> Kultura eta Kirol Ministerioa (2018)	Urtean behin

5. ERREFERENTZIA-AGIRIAK

- Antúñez, M. (2009). Deporte. De los podios que ocultan violencia a la cancha propia.
- Europako Batzordea (2014). Gender Equality in Sport: Proposal for Strategic Actions 2014 – 2020.
- Nazioarteko Olinpiar Batzordea (2006). Sexu-jazarpenari eta Abusuei buruzko Adostasun Dokumentua.
- Nazioarteko Olinpiar Batzordea (2019). La protección de los atletas ante el acoso y el abuso en el deporte Manual para las FI y los CON.
- Kirol Kontseilu Gorena (2012). Berdintasuna kirol-federazioen kudeaketan txertatzeko gida.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila (2003). Kirolaren Euskal Plana 2003-2007.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila (2010). EAEko Goi-mailako Emakumezko Kirolarien Egoeraren Azterketa Genero Ikuspuntutik.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Gazteria eta Kirol Saila (2002). Hamabi eta hemezortzi urte bitarteko neska gazteak kirol-praktika uztera eramaten dituzten zergatiak eta arazo horretan esku hartzeko proposamenak. Itxaso proiektua.
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila (2016). Berdintasunean Lanean EAEko Federazioen Esparruan: Gogoeta Gidatuz, Ekintzara Igarotzeko.
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila (2016). EAEko kirol arloko giza baliabideen lan-egoerari eta kualifikazioari buruzko azterlana.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila (2019). Euskal Autonomia Erkidegoko Osasun inkesta 2018.
- Bizkaiko Foru Aldundia (2017). Bizkaiko ikasleen kirol-ohiturak 2017
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Kirol Zuzendaritza (2009). Kirol Ohiturei buruzko Inkesta EAEn.
- Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Kirol Zuzendaritza (s.f.). Emakumeen kirola: presentzia eta trataera orotariko euskal prentsan eta kirol-egunkarietan.2015-2016 denboraldiaren azterketa.
- Emakunde (2015). Kirolean emakumeen aurkako sexu-jazarpena eta abusuak prebenitzeko gida. Protokoloa egiteko jarraibideak.
- Emakunde (2018). Zifrak 2018.Emakumeak eta gizonak Euskadin.

-
- Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabinetea (2017). *Kirola eta jarduera fisikoa 2017.*
 - Genero berdintasunaren Europako Institutua (EIGE) (2015). *Gender Equality in Sport.*
 - Martín, M. eta Juncà, A. (2014). *El acoso sexual en el deporte: el caso de las estudiantes-deportistas del grado de Ciencias de la Actividad Física y el Deporte de Cataluña.*
 - National Eating Disorders Association-NEDA (s.f.). *Athletes and eating disorders.*
 - Mugiment Euskadi. *Mugiment proiektuaren webgunea.*

BESTE ESTEKA INTERESGARRI BATZUK

- Norvegiako Olinpiar Batzordea. *Sexual Harassment and Abuse in Sports.*
- *Safe 4 athletes.* Kirol-esparru segurua eta sexu-jazarpen eta -abusurik gabeta bermatzeko helburua duen irabazi-asmorik gabeko erakundea. Gailu mugikorretarako aplikazioa dauka.
- Women's Sports Foundation. *Sexual harassment and sexual relationships between coaches, other athletic personnel and athletes.*
- Women's Sports Foundation. *Addressing the issue of verbal, physical and psychological abuse of athletes.*